

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 25/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 23koa. Akatsak zuzentzea abenduaren 30eko 544/2019 Foru Dekretuan, zeinaren bidez onetsi baitzen Arabako udal eta kuadrillei eta Trebiñuko Enklabeari zuzendutako dirulaguntzen deialdi publikoa, sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetzaren sustatzera bideratutako programak edota jarduerak garatzeko. 2020ko ekitaldia

2019ko abenduaren 30ean, Diputatu Nagusiak 544/2019 Foru Dekretua onetsi zuen, zeinaren bidez onetsi baitzen Arabako udal eta kuadrillei eta Trebiñuko Enklabeari zuzendutako dirulaguntzen deialdi publikoa, sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetzaren sustatzera bideratutako programak edota jarduerak garatzeko. 2020ko ekitaldia. Ikusi da huts bat dagoela foru dekretuaren eranskinean, beharrezko agiriei dagokienez.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea abenduaren 30eko 544/2019 Foru Dekretuaren eranskinaren 6. artikuluko d) apartatua, honela:

Honako hau dioen lekuan:

“Erakundearen organo eskudunaren erabakiaren ziurtagiria, gastu eskaera eta finantzaketa baimentzen duena, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik”

Hau esan behar du:

“Erakundearen organo eskudunaren erabakiaren ziurtagiria, haren idazkariak egina, gastu eskaera eta finantzaketa baimentzen duena, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik”

Bigarrena. Zuzentzea abenduaren 30eko 544/2019 Foru Dekretuaren eranskinaren 6. artikuluko e) apartatua, honela:

Honako hau dioen lekuan:

“Egiaztagiria udalerrian edo udalerrietan erroldatutako pertsona kopuruarena, 2020ko urtarrilaren 1ekoa. Egiaztagiri honetan pertsonen nazionalitatea eta sexua agertu behar da”

Hau esan behar du:

“Egiaztagiria, udalerrian edo udalerrietan erroldatutako pertsona kopuruarena, erakundearen idazkariak egina, 2020ko urtarrilaren 1ekoa. Egiaztagiri horretan pertsonen nazionalitatea eta sexua agertu behar da”

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendaria

NEREA MELGOSA VEGA